


>>>

elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



PARTEHARTZEA

**DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONEN
ESKUBIDEEI BURUZKO
KONBENTZIOA**

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN
INGURUKO PARTEHARTZEARI
BURUZKO 7. OHAR OROKORRA,
ORDEZKATZEN DITUZTEN
ERAKUNDEEN BITARTEZ

AURKIBIDEA

4 or.

01

ZER DA
KONBENTZIOA?

8 or.

02

ZER DIRA OHAR
OROKORRAK?

10 or.

03

PARTAIDE-
TZAREN TES-
TUINGURUA
ORDEZKARITZA-
-ERAKUNDEEN
BITARTEZ

12 or.

04

DESGAITASUNA
DUTEN PERTSO-
NEN PARTEHAR-
TZEAREKIN
LOTUTAKO KON-
TZEPTUAK

14 or.

05

ZER
JASOTZEN DU
DESGAITASUNA
DUTEN
PERTSONEK
PARTE
HARTZEKO
ESKUBIDEAK?

16 or.

06

ESTATU KIDEEN
BETEBEHARRAK

20 or.

07

BESTE ESKUBIDE
BATZUEKIKO
ZEHARLERROTASUNA

01

ZER DA KONBENTZIOA?



Desgaitasunaduten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zuten New Yorkeko Nazio Batuen Egoitzan eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zuten indarrean, Estatuak sinatu eta berretsi ostean. Horrenbestez, nahitaez betetzekoa da.

Konbentzioak berekin dakartzan berritasunen artean, ondoko hauek nabarmentzen dira:

01

Desgaitasuna giza eskubideekin lotuta dago, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitate edo asistentziako politiken «objektu»; aitzitik, giza eskubideen «subjektu» dira.

02

Desgaitasuna medikuntzaren ikuspuntutik ulertzeko modua gainditzen du –osasun eta asistentzia arloko alderdiak lehenesten ditu horrek–, desgaitasunaren inguruan gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasuna urritasunak dituzten pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza baita, gizartean erabat eta eraginkortasunez, besteen baldintza berdinetan, parte har dezatela ekiditen duten jarrera eta ingurunearen ondoriozko hesiak gainditzeko.

03

Desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia izateak duen garrantzia aitzortzen du, erabakiak hartzeko askatasuna barne.

04

Konbentzioak irizten dio desgaitasuna duten pertsonak aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dutela politika eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, beraiei zuzenen eragiten dietenak barne direla.

Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere. (1. artikulua).

HAUEK DIRA
KONBENTZIOAK
AITORTZEN
DITUEN
ESKUBIDE
NAGUSIAK:

Berdintasuna eta
diskriminaziorik eza.

Bizitzeko eskubidea.

Irisgarritasuna.

Justiziara iristea.

Legeak berdintasunez pertsona
gisa aintzatestea.

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna.

Torturaren eta bestelako tratu
edo zigor krudel, anker edo
umiliagarrien aurkako babesa.

Esplotazio, indarkeria
eta abusuen aurkako
babesa.

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna.

Joan-etorriak egiteko
eta nazionalitaterako
askatasuna.

Osotasun pertsonalaren
babesa.

Modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea.

Mugikortasun pertsonala.

Hezkuntza.

Adierazpen- eta iritzi-askatasuna, eta informazioa eskuratzekoa.

Pribatutasunaren errespetua.

Osasuna.

Etxearen eta familiaren errespetua.


Gaikuntza eta birgaikuntza.

Bizi-maila egokia eta gizarte-babesa.

Lana eta enplegua.



Partaidetza bizitza politikoan eta publikoan.

Partaidetza bizitza kulturean, jolas jardueretan, aisian eta kirolean.




02

ZER DIRA OHAR OROKORRAK?



Batzordeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz taxututako dokumentuak dira. Aipatu Batzordea Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzeko duen aditu independenteek osatutako organo bat da, Konbentzioan aitortutako eskubideak argitzeko eta Estatuaren interpretaziorako gida modura baliagarri izan dadin.

Orain arte, Batzordeak Ohar
Orokor hauek egin ditu:



- 1. ohar orokorra (2014) - 12. artikulua: Legeak berdintasunez pertsona gisa aintzatestea
- 2. ohar orokorra (2014) - 9. artikulua: Irisgarritasuna
- 3. ohar orokorra (2016), desgaitasuna duten emakume eta neskatoei buruzkoa
- 4. ohar orokorra (2016), heziketa inklusiborako eskubideari buruzkoa
- 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea
- 6. ohar orokorra (2018), berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa
- 7. ohar orokorra (2018), desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari buruzkoa, desgaitasuna duten mutiko eta neskatoen barne, horiek ordezkatzan dituzten erakundeen bidez, Konbentzioa aplikatuz eta jarraitu
- 8. ohar orokorra (2022), desgaitasuna duten pertsonen lana eta enplegua izateko daukaten eskubideari buruzkoa

03

PARTAIDETZAREN TESTUINGURUA ORDEZKARITZA- ERAKUNDEEN BITARTEZ



Historikoki, desgaitasuna duten pertsonen bizitzarekin zerikusia duten erabakiak hartu direnean ez da haien iritzia kontuan hartu, ezta haiengan eragina duten gaiei inguruko erabakietan ere. Haien izenean hartu izan dira erabakiak, desgaitasuna duten pertsonen iritziak baztertuz eta ordezkatzan dituzten beste pertsonen iritziak lehenetsiz, desgaitasuna duten pertsonen erakundeenak kasu.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzen dituzten mugimenduen sorrerak, ordea, egoera irauli du. Euren giza eskubideak aitortzeko eskaera aldarrikatu dute, baita desgaitasuna duten pertsonen partehartzea ere. Defentsa horri esker, galdeketetan desgaitasuna duten pertsonen partehartzea ezinbestekotzat jo da. *Gu gabe ezer ez guri buruz* leloa da adibiderik garbiena.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren negoziazioan, prestaketan eta erredakzioan desgaitasuna duten pertsonen partehartzea erabatekoa izan da, eta erabakigarria. Desgaitasuna duten pertsonekin harreman estua eta lankidetzat aktiboa izatea, ordezkatzan dituzten erakundeen bitartez, funtsezkoa izan da, besteak beste, kalitatezko Konbentzio batean eragin duelako.

Era berean, desgaitasuna duten pertsonen indarra, eragina eta potentziala erakutsi dute aurrekaririk gabeko giza eskubideen ituna bultzatzeko, eta, giza eskubideetan oinarritutako desgaitasun eredu ezartzeko. Desgaitasuna duten pertsonen partehartzea egiazkoa izateaz gain, eraginkorra izan da, eta, beraz, Konbentzioaren zutabeetako bat. Prozesua desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzan dituzten erakundeen laguntzarekin gauzatu da.

Norberaren bizitzari edo eskubideei dagozkion erabakietan partehartze aktiboa izatea, eta aurrez informatuta egotea, bat dator giza eskubideen ikuspegiarekin, batez ere, erabakiak eremu publikoan hartzen badira. Horrela egiten bada, bermatuta geratzen dira gobernantza eta erantzukizun soziala.



Horregatik guztiagatik, estatu kideek aitortu beharko lukete **desgaitasuna duten pertsonen partehartzea eta integrazioa** ordezkatzan dituzten elkarleen bitartez; batetik, ondorioak positiboak direlako, baina, batez ere, bizi izan dituzten esperientziak baliagarriak direlako eta ezagutza maila handia dutelako. Era berean, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin eta haren helburuekin koherentea delako.

04

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN PARTEHARTZEAREKIN LOTUTAKO KONTZEPTUAK



Desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeak, desgaitasuna duten pertsonen erakundeak bezala ezagunak, desgaitasunen bat duten pertsonak zuzentzen, kudeatzen eta gobernatzen dituzte, eta, partaide gehienek desgaitasuna duten pertsonak izan behar dute jarraian zerrendatzen diren **ezaugarriekin**:

- Konbentzioak aitortzen dituen printzipio eta eskubideetan oinarritzen dira.
- Modu kolektiboan desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzea, aldarrikatzea, sustatzea, adieraztea edota haien alde jardutea dute helburu.
- Desgaitasuna duten pertsonak enplegatu eta pertsona horiek ordezkatzeko dituzte.
- Ez dira alderdi politikoetako kide, eta independenteak dira agintaritza publiko zein gobernu kanpoko beste erakundeekiko, partaide edo bazkide izan badaitezke ere.
- Benetako edo hautemandako gabezietan oinarrituta, pertsona-talde bakar bat, edo gehiago, ordezkari dezakete, edota, desgaitasuna duten pertsona guztiak onar ditzakete elkarteko kide modura.
- Desgaitasuna duten pertsona-talde guztiak ordezkatzeko dituzte, aniztasun egoera oro (sexu, genero, arraza, adin, migratzaile, errefuxiatu...). Izaera transbertsala duten taldeak barne, esate baterako, desgaitasuna duten haurrak, emakumeak edo pertsona indigenak, edota, askotariko desgaitasunak dituztenak.
- Eragin eremu zabala har dezakete: tokikoa, nazionala, eskualdekoa edo nazioartekoa.
- Bakarka, elkartuta edo koordinadora gisa, baita desgaitasun mota ezberdinak dituzten pertsonen eskubideak defendatzen dituzten elkarten batusun bezala, gara dezakete bere jarduna; helburua, ordea, bera da: desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko, elkarlanean eta modu koordinatuan, erakunde publiko, nazioarteko erakunde edota entitate pribatuen aurrean.

Desgaitasuna duten pertsonen elkarteak **mota** hauetakoak izan daitezke:

- a) Desgaitasuna duten pertsonen erakunde koordinatzaileak: desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten elkarten arteko koalizioak dira. Ordezkatzen dituzten elkarten izenean jarduten dute; bakarka, ez dituzte desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen.
- b) Desgaitasun mota ezberdinak dituzten pertsonak ordezkatzen dituzten elkarteak: desgaitasun guztiak, edo horietako batzuk, dituzten pertsonak ordezkatzen dituzte.
- c) Sare edo plataforma ezberdinetan, desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten auto-gestore elkarteak: desgaitasuna duten pertsonen eskubideak sustatzen dituzte, bereziki, desgaitasun intelektuala dutenena. Elkarte hauen sorrera, laguntza egokiarekin (zenbaitetan zabalarekin), funtsezkoa da elkarteko kideek maila politikoan bere iritzia plazaratu eta horien arabera erabakiak hartzeko, eta, ondoren, erabakiak betetzen direla bermatu eta jarraipena egiteko. Berebiziko garrantzia hartzen dute bere gaitasun juridikoa gauzatea debekatzen zaien pertsonen kasuan, batez ere instituzioen mende daudenean edo bozkatzeko eskubidea debekatzen zaienean.
- d) Desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak biltzen dituzten erakundeak: gurasoek, senitartekoek eta zaintzaileek desgaitasuna duten pertsonak ahalduz laguntzen dute, eta laguntza ematen diete bere iritzia gizarteratzen eta bere bizitzaren gaineko erabakiak hartzen. Erakunde horiek erabakiak hartzeko laguntza-prozesuak aktiboki sustatu eta erabili beharko lituzkete, desgaitasuna duten pertsonak kontsultatuak izateko eta beren iritzia emateko duten eskubidea errespetatzen dela ziurtatzeko.
- e) Desgaitasuna duten emakumeen eta neskatoen erakundeak, desgaitasunen bat duten emakumeak eta neskatoak ordezkatzen dituztenak: desgaitasuna duten emakumeek eta neskatoek nahitaez parte hartu behar dutela ziurtatzea dute helburu, bai haiei eragiten dieten gai espezifikoei buruzko kontsultetan, baita emakumeei eta neskatoei buruzko kontsultetan ere, esaterako, genero-berdintasuneko politiketan.
- f) Desgaitasuna duten haur eta gazteen erakundeak eta ekimenak, helburu hauek dituztenak: haurrek bizitza publikoan eta komunitarioan partehartzea sustatzea; entzunak izatea eta adierazteko zein elkartzeko askatasuna bermatzea.

Antolaketa egoki baterako, elkarte hauen artean **bereizketa** egin behar da:

Desgaitasuna duten pertsonen elkarteak

Estatuek garrantzi berezia eman beharko liekete, beren gaitasuna eta ahalduntzea babestu, eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen dutela ziurtatu.

VS

Desgaitasuna duten pertsonentzako elkarteak

Zerbitzuak eman edota desgaitasuna duten pertsonen interesak defendatzen dituzte; baina, erakunde gisa dituzten helburuak desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aurretik jartzen badituzte, interes-gatazkak sor ditzake.

Gizarte zibilaren antolakuntza-mota jakin bat dira, eta gizarte zibileko edo koalizioetako erakunde koordinatzaile orokor bateko kide izan daitezke.

VS

Hainbat erakunde-mota biltzen ditu, hala nola, ikerketa-erakundeak eta -institutuak, zerbitzu-emaileak, etab., eta Konbentzioaren jarraipena egin behar dute.



05

ZER JASOTZEN DU DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK?



Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak **modu honetan jasotzen du** Desgaitasuna duten pertsonak, haiek ordezkatzeko dituzten erakunde bidez, parte hartzeko duten eskubidea.



4.3. artikulua jasotzen du “ *I. Konbentzioa gauzatzeko legeria eta politikak landu eta aplikatzerakoan, baita desgaitasuna duten pertsonekin zerikusia duten gaien buruzko erabakiak hartzeko beste zenbait prozesuetan, estatu kideek kontsultak egingo dituzte haiekin, lankidetzan, baita desgaitasuna duten haurrekin edota haiek ordezkatzeko dituzten erakundeekin*”.

4.3. ARTIKULUKO GAI OROKORRAK:



Lege, erregelamendu eta politika orokorrak, edo desgaitasunari buruzkoak, onartu aurretik nahitaez hartu beharreko neurria da.



Erabakiak hartzeko prozesu guztietan kontsultak hasierako faseetan egin behar dira, ekarpenak azken emaitzan txertatzeko.



Desgaitasuna duten pertsona guztiek parte har dezakete, desgaitasun-motaren arabera inor baztertu gabe. Partehartzeak eraginkorra eta erabatekoa izan behar du, diskriminaziorik gabe eta gainerakoen baldintza berberetan.



Sektore publikoko erabaki-guneetara sarbidea aintzat hartzen du, baita beste eremu hauetan ere: ikerketa, diseinu unibertsala, aliantzak, botere delegatua eta herritarren kontrola.

4.3. ARTIKULUA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK:



Desgaitasuna duten pertsonekin zerikusia duten gaiak: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei zuzenean edo zeharka eragin diezaiaketen lege-, administrazio- eta bestelako neurri guztiak biltzen ditu. Beraz, interpretaziorako margina handia da, desgaitasuna duten pertsonen ezagutza eta bizi-esperientziak kontuan hartu nahi dituenak. Estatu batek uste badu edozein neurri hartzeko ez duela kontsultarik egin behar, aurrez desgaitasuna duten pertsonen eragiten ez diela frogatu beharko du.



Kontsultak egitea eta lankidetzan aritzea: desgaitasuna duten pertsona guztiek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko duten gaitasun juridikoaren aitortza eskatzen du aldez aurretik, autonomia pertsonala eta erabakiak libreki hartzeko aukera emanez. Desgaitasuna duten pertsonen erakundeekin kontsultak eta lankidetzak-prozesuak sistematikoak beharko lukete izan, betiere formatu

eskuragarriak eskainiz, eta, hala behar denean, arrazoizko doikuntzak bermatuz. Erabakiak hartzeko prozesuak zuzentzen dituzten agintari publikoek desgaitasuna duten pertsonen erakundeetara prozesu horien emaitzen berri eman behar diete, modu argian eta formatu ulergarrian. Bereziki, haien iritziak kontuan hartzeko moduari eta zergatiari buruzkoak direnean.

- * **Desgaitasuna duten haurrak kontuan hartzea:** garrantzitsua da desgaitasuna duten haurrak sistematikoki sartzea Konbentzioa gauzatzeko legeria eta politikak diseinatzeko eta aplikatzeko, bai eta erabakiak hartzeko beste prozesu batzuetan ere, batez ere, laguntza erakundeen bitartez. Horretarako, erakundeak sortzeko eta modu egokian funtzionatzeko ingurune egokia sortu behar da. Legeak eta erregelamenduak onartu behar dira, eta programak egin behar dira, pertsona guztiek haurren borondatea eta lehentasunak ulertu eta errespetatu dituzaten, eta haien gaitasun pertsonal ebolutiboa uneoro kontuan har dezaten. Adibide gisa, mintegiak eta bilerak antola ditzakete, desgaitasuna duten haurrak haien iritzia ematera gonbidatzeko; edo, gonbidapen irekiak egin, gai zehatzei buruzko proposamenak bidal dituzaten, haien esperientzia pertsonalak edota espektatibak azaltzera animatuz.

- * **Parte-hartze osoa eta eraginkorra:** 3 c) artikularekin erlazionatu behar da; bertan, "*erabateko partaidetza eta inklusio eraginkorra izateko*" printzipioa onartzen da. Printzipio hori, nolana ere, prozesu gisa ulertu behar da, eta ez gertaera isolatu gisa. Erabateko partehartze eraginkorra gizartea aldatzeko eta pertsonen ahalduntzea eta ekintzailetasuna sustatzeko eraldaketa-tresna ere izan daiteke. Desgaitasuna duten pertsonen erakundeak erabakiak hartzeko modu guztietan integratzeak indartu egiten du pertsona horiek beren eskubideak negoziatzeko eta defendatzeko duten gaitasuna, eta ahaldundu egiten ditu euren iritziak irrimoago adieraz ditzaten, beren nahiak egia bihurtzeko eta beren ahots kolektiboak eta askotarikoak indar ditzaten. Estatu kideek desgaitasuna duten pertsonen partaidetza osoa eta eraginkorra ziurtatu beharko lukete, pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen bitartez, pertsona horiek gizartean sartzeko eta pertsona horien bereizkeriari aurre egiteko neurri gisa. Erabateko partaidetza bermatzen duten eta desgaitasuna duten pertsonen erakundeekin lankidetzan aritzen diren estatu kideek gardentasuna eta kontu-ematea hobetzen dute, eta pertsona horien eskakizunei hobeto erantzutea lortzen dute.

21

33. paragrafoak aplikazio-mekanismoak eta ikuskapen-esparru independenteak ezartzen ditu, eta 3. paragrafoak adierazten duenez, *II. "gizarte zibila, eta, bereziki, desgaitasuna duten pertsonak eta ordezkatzan dituzten erakundeak, integratuta egongo dira eta jarraipen-prozesuaren maila guztietan parte hartuko dute".*

33. ARTIKULUA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK:

- * Estatu kideek zaindu beharko lukete gainbegiratze-esparru independenteek ahalbidetu, erraztu eta berma dezatela desgaitasuna duten pertsonen elkar-
teak esparru eta prozesu horietan aktiboki integratzea, eta egiten diren txosten
eta analisietan, mekanismo formalen bidez, haien ahotsak entzun eta aitortu
daitez.
- * Estatu kideek zaindu beharko lukete gainbegiratze-esparru independenteek
desgaitasuna duten pertsonen elkar-
teak esparru eta prozesu horietan aktiboki
integratzea haien partehartzea ahalbidetu, erraztu eta bermatuz; era berean,
egiten diren txosten eta analisietan, mekanismo formalen bidez, haien iritzia
jasotzen eta aitortzen dela bermatu behar dute.
- * Desgaitasuna duten pertsonen erakundeek behar adina baliabide izan beharko
lituzkete, besteak beste, finantzazio independente baten bidez, eta haiek kudea-
tuta, gainbegiratze-esparru independenteetan parte hartzeko. Era berean, arra-
zoizko doikuntzak eta irisgarritasunaren eskakizunak erantzuten direla bermatu
behar dute.



06

ESTATU KIDEEN BETEBEHARRAK



- 01** | **Kontsulta egokiak egitea** desgaitasuna duten pertsonekin, eta pertsona horiek modu aktiboan integratzea, pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen bitartez, Konbentzioak jasotzen dituen neurriak betetzeko onartzen diren lege eta politikak eztabaidatzen diren guztiak.
- 02** | Kontsulta-prozesuen **gardentasuna** bermatzea, **informazio egokia eta irisgarria** ematea eta lehen etapetatik etengabeko partehartzea sustatzea.
- 03** | Kontsulta-prozesuetan parte hartzeko aurretiazko baldintza gisa **ez eskatzea** desgaitasuna duten pertsonen erakundeak **erregistratuta** egotea.
- 04** | Eremu publikoan kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko instalazio eta prozedura guztiak desgaitasuna duten pertsonentzat **irisgarriak** izatea zaintzea.
- 05** | **Finantza-baliabideak jartzea** desgaitasuna duten pertsonen erakundeetako ordezkarietara kontsulta-prozesuekin lotutako gastuak ordaintzeko.
- 06** | **Gardentasuna, elkarrekiko errespetua, elkarrizketarako borondatea** eta kontsultetan **akordio kolektiboak** lortzeko borondate zintzoa oinarri izatea.
- 07** | **Arrazoizko denbora-tarte** egingarriak aurreikustea, desgaitasuna duten pertsonen erakundeen izaera kontuan hartuz, askotan boluntarioen lanaren mende baitaude.
- 08** | Parte hartze eta kontsulta mekanismoak aldizka **ebaluatzea** desgaitasuna duten pertsonen erakundeen lankidetzara aktiboarekin.

- 09** | Desgaitasuna duten pertsonen iritziak, pertsona horiek ordezkatzen dituzten erakundeen bitartez, **aintzat hartu beharko lirateke**, eta euren iritziak kontuan hartuko direla, eta ez formaltasun edo keinu sinboliko gisa bakarrik. Era berean, kontsulta horien emaitzak kontuan hartu behar dira, eta hartzen diren erabakietan islatu, partehartzaileei prozesuaren emaitza behar bezala helaraziz.
- 10** | **Mekanismo eta prozedura egokiak eta gardenak** ezartzea, erabaki publiko bat arrazoitzen denean erakunde horien iritziak berariaz kontuan hartzeko.
- 11** | Desgaitasuna duten pertsonak Konbentzioari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan zuzenean eta modu aktiboan kontsultatuak izateko duten eskubidea zuzenean edo zeharka oztopatzen duten **diskriminazio-praktikak** debekatzea.
- 12** | Desgaitasuna duten pertsonen edo beste interesdun batzuen erakundeetako ordezkarien **interes-gatazkak salatzeko mekanismoak sortzea**, desgaitasuna duten pertsonen autonomian, borondatean eta lehentasunetan eragin negatibo oro saihesteko.
- 13** | Erabakiak hartzeko prozesuetan eta desgaitasuna duten pertsonekin zerikusia duten gaiei buruzko legeak eta politikak egiteko prozesuetan, esate baterako, desgaitasunaren arloko legeria, politikak, estrategiak edota ekintza-planak, **esparru eta prozedura juridiko eta arauzkoak ezartzea**, desgaitasuna duten pertsonen partehartze osoa, ordezkatzen dituzten erakundeen bitartez, berdintasun-baldintzetan bermatzeko.
- 14** | **Batzorde iraunkorretan edota aldi baterako lantaldeetan** desgaitasuna duten pertsonen erakundeetarako **postuak** aurreikusten dituzten xedapenak onartzea, eta organo horietarako kideak izendatzeko eskubidea ematea.
- 15** | **Kontsultarako prozedura formalak ezartzea eta arautzea**, hala nola inkestak, bilerak (edo beste metodo batzuk) planifikatzea, kronograma egokiak ezartzea, ...

- 16** | Asistentziaren jarraipena egiteaz, ordezkaritza txikia duten taldeak hautemateaz eta irisgarritasun-eskakizunei eta arrazoizko doikuntzei erantzuten zaiela zaintzeaz **arduratuko diren pertsonak izendatzea**.
- 17** | **Politiken formulazioa prestatzeko azterlan eta analisisetan** desgaitasuna duten pertsonen erakundeekin kontsultak egitea eta lankidetzak sustatzea.
- 18** | **Jarraipen- eta ebaluazio-sistemek** desgaitasuna duten pertsonen erakundeek politika eta programa guztietan duten integrazio-maila aztertu beharko lukete, eta pertsona horien iritziei lehentasuna emango zaiela ziurtatu.
- 19** | **Ordezkaritza-koalizio bakarra, batua eta anitza sor dadin bultzatzea**, batasuna adieraziz eta desgaitasuna duten pertsonen elkarte guztiak txertatuz, haien aniztasuna eta parekotasuna errespetatuz, eta, nazio-mailan, Konbentzioaren segimenduan parte hartuko dutela eta integratuko direla ziurtatuz. Gizarte zibileko erakundeek, oro har, ezin dituzte desgaitasuna duten pertsonen erakundeak ordezkatu, ezta haiek bezala jardun.
- 20** | Desgaitasuna duten pertsonen erakundeek **politikak egiteko etapa guztietan parte hartzeko duten gaitasuna indartzea**, desgaitasunaren giza eskubideen ereduari buruzko prestakuntza-saioak sustatzeko jarduerak eskainiz, besteak beste, finantzaketa independentearen bidez.
- 21** | Desgaitasuna duten pertsonen eta pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundeetara laguntzea, gizartean modu independentean **erabateko partaidetza eraginkorra sustatzeko** beharrezkoak diren konpetentziak, ezagutzak eta gaitasunak eskuratzen.
- 22** | Desgaitasuna duten pertsonen erakundeak erraz eta doan **erregistra daitezkeela** ziurtatzea.

23

Desgaitasuna duten pertsonen erakundeek **funtsak eta baliabideak** eska eta lor ditzaketela ziurtatzea. Horretarako, kontsulta-jarduerak finantzatzeko irizpide hauek aintzat hartzea gomendatzen da:

- Funtsak zuzenean ematea, bitartekariak saihestuz.
- Pertsona horien eskubideen defentsan ari diren erakundeei zuzendutako baliabideak lehenestea.
- Funts espezifikoak esleitzea desgaitasuna duten emakumeen eta desgaitasuna duten haurren erakundeei.
- Erakundeen artean funts-zuzenak banatzea, eta, unean uneko proiektuen finantzaketara mugatu beharrean, erakundeen oinarrizko finantzaketa bermatzea.
- Finantzaketa jaso arren, sustapen-programetan erakundeen autonomia bermatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen erakundeen funtzionamendurako finantzaketa eta horiek gauzatzen dituzten proiektuak bereiztea.
- Desgaitasuna duten pertsonen erakunde guztiei finantzaketa erraztuz, auto-kudeatzaile erakundeak eta oraindik estatutu juridikorik lortu ez dutenak barne.
- Finantzaketa-eskaerak formatu irisgarrietan egiteko prozesuak onartzea eta aplikatzea.
- Funts nazionaletarako sarbidea dutela ziurtatzea beren jardueri laguntzeko, kanpo-iturrien mende egon gabe eta egitura organiko bideragarriak ezartzeko gaitasuna mugatu gabe.

24

Laugarren kapituluko 3. parrafoa eta hogeita hamahirugarren artikuluko 3. parrafoa betetzen ez direnean, mekanismo eta prozedura sendoak ezartzea zehapen eraginkorrak ezartzeko.

25 | Desgaitasuna duten pertsonak parte hartzeko duten eskubidea baliatzeko baliabide eraginkorrak onartzea, hala nola, ekintza edo eskari kolektiboak.

26 | Desgaitasuna duten pertsonen **elkarte koordinatzaileen** sorrera bultzatzea, erakunde horietako kideen jarduerak koordinatu eta ordezkatzeaz arduratuko direnak, bai eta desgaitasun-mota ezberdinak dituzten desgaitasuna duten pertsonen erakunde indibidualak ere, jarraipen-prozesuan erabat sartuta daudela eta parte hartzen dutela bermatzeko, batez ere ordezkaritza txikia duten pertsonen kasuan.


27 | **Aurrekontu publikoak** egiteko prozesuetan, nazio mailako **Garapen Jasangarriko Helburuen** segimenduan, nazioarteko erabakiak hartzerakoan, edota, **nazioarteko lankidetzan** esparruetan, desgaitasuna duten pertsonak modu aktiboan integratzea eta pertsona horiei kontsulta egitea.

28 | Partehartze egokiaren adierazle **egiaztagarriak** definitzea, eta horien jarraipena egiteko egutegiak adostea eta arduradunak izendatzea



07

BESTE ESKUBIDE BATZUEKIKO ZEHARLERROTASUNA



Desgaitasuna duten pertsonak, pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundearen bitartez, parte hartzeko duten eskubidea bat dator Konbentzioak aitortutako dituen beste giza eskubide batzuekin:

- Desgaitasuna duten pertsonen berdintasun eta diskriminazio-eza politikak sustatzeko esparruetan haien parte hartzea bermatu behar da. **BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA.**
- Inklusioa: kontsulta-prozedurek ez dituzte desgaitasuna duten pertsonak baztertu behar, ezta urritasun batengatik diskriminatu ere. **INKLUSIOA.**
- Prozedurek eta materialek inklusiboak eta irisgarriak izan beharko lukete desgaitasuna duten pertsonentzat, eta, kontsulta-prozesuetan integratzeko, hastapenetik, egutegiak eta laguntza teknikoak aurreikusi beharko lirateke. **IRISGARRITASUNA.**
- Arrazoizko doikuntzak egin beharko lirateke elkarrizketa eta kontsulta-prozesu guztietan. **ARRAZOIZKO DOIKUNTZAK.**
- Estatu kideek sustatu eta erraztu beharko lituzkete desgaitasuna duten emakumeen eta neskatuen elkarrekin sorrera, haien bidez bizitza publikoan parte har dezaten ahalbidetzeko mekanismo gisa, desgaitasuna duten gizonen baldintza berberetan. **DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN ETA NESKATUEN BERDINTASUNA.**
- Estatu kideek neurriak hartu beharko lituzkete desgaitasuna duten haurren parte hartzea eta integrazio aktiboa ziurtatzeko, haur horiek ordezkatzeko dituzten erakundearen bitartez. **DESGAITASUNA DUTEN HAURREN BERDINTASUNA.**
- Estatuak, desgaitasuna duten pertsonen erakundearen parte hartzearekin eta haien giza eskubideen eremuan oinarrituta, kontzientzia hartzeko programa sistematikoak egin behar dituzte. **KONTZIENTZIA HARTZEA.**
- Arrisku-egoeretan eta larrialdi humanitarioetan, estatu kideek eta eragile humanitarioek, desgaitasuna duten pertsonen erakundearen parte hartze aktiboa eta koordinatua ziurtatu behar dute, baita haien iritzia kontuan hartzea. **ARRISKU-EGOERAK ETA LARRIALDI HUMANITARIOAK.**

- Legearen aurrean pertsona gisa aitortzea aurretiazko baldintza da benetako kontsulta eraginkor-
rak egiteko, eta legeria eta politikak egiten eta aplikatzen diren esparruetan, desgaitasuna duten
pertsonek partehartzea bermatuz Konbentzioa aplikatzeko. **LEGEAREN AURREAN PERTSONA
GISA BERDIN AITORTZEA.**
- Gaitasun juridikoa ezinbestekoa da gizartean erabat eta eraginkortasunez parte hartzeko, baita
erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko ere. Desgaitasuna duten pertsona guztiei bermatu
beharko litzaiekeen eskubidea da. **GAITASUN JURIDIKOA AITORTZEA.**
- Desgaitasuna duten pertsonak justiziara jotzeko eskubidea dute, gainerakoek baldintza berbere-
tan, baita justizia-sistema osoan parte hartzeko eskubidea ere. **JUSTIZIARAKO SARBIDEA.**
- Agintari independenteek desgaitasuna duten pertsonari arreta emateko diseinatutako establezi-
mentu eta programak eraginkortasunez zaindu behar dituzte, esplotazio-, indarkeria- eta abusu-
-mota guztiak saihesteko. **ESPLOTAZIOA, INDARKERIA ETA ABUSUA.**
- Modu independentean bizitzeko eta komunitatean sartzeko eskubidea baliatzen denean, desgai-
tasuna duten pertsonari egindako kontsultak edota haien partehartze aktiboa, pertsona horiek or-
dezkatzen dituzten erakundeek bitartez, funtsezkoak dira plan eta estrategia guztiak onartzeko,
bai eta jarraipena eta ikuskapena egiteko ere. **BIZIMODU INDEPENDENTEA.**
- Informazioa eskuratzea beharrezkoa da desgaitasuna duten pertsonen erakundeek jarraipen-
-prozesuan bete-betean esku hartu eta parte har dezaten, eta beren iritzia askatasunez adieraz
dezaten. **INFORMAZIOA ESKURATZEA.**
- Estatu kideek modu aktiboan kontsultatu eta integratu beharko lituzkete desgaitasuna duten per-
tsonak, pertsona horiek ordezkatzen dituzten erakundeek bitartez, hezkuntza inklusiboari buruz-
ko politiken eta legeen plangintzako, aplikazioko, jarraipeneko eta ebaluazioko alderdi guztietan.
HEZKUNTZA INKLUSIBOA.
- Desgaitasuna duten pertsonak lanerako eta enplegurako duten eskubideari buruzko politika guz-
tiak onesteko, desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeek kontsulta egin
beharko litzaieke, eta haiekin lankidetzan jardun. **ENPLEGU INKLUSIBOA.**
- Desgaitasuna duten pertsonen erakundeek politika publikoetan parte hartzea ezinbestekoa da
estatu kideetako agintariak neurriak har ditzaten desgaitasuna duten pertsonen, eta haien fami-
lien, arteko bazterketa-, desberdintasun- eta pobrezia-egoera zehatzak konpontzeko. **BIZI-MAI-
LA EGOKIA ETA GIZARTE-BABESA.**

- Desgaitasuna duten pertsonak bizitza politikoan eta publikoan parte hartzeko duten eskubideak berebiziko garrantzia du, desgaitasuna duten pertsonak gainerakoek dituzten aukera berak izan ditzaten gizartean txertatzeko eta eraginkortasunez parte hartzeko. **BIZITZA POLITIKOAN ETA PUBLIKOAN PARTE HARTZEA.**
- Estatu kideek, desgaitasuna duten pertsonen erakundeekin lankidetzan, sistema bateratu bat ezarri beharko lukete desgaitasuna duten pertsonen datu-base osatu, egoki, fidagarri eta kalitatezkoa osatzeko, eta, bide batez, Konbentzioak babestutako eskubideak eskuratzeko. **DATU ESTATISTIKOEN SISTEMA BATERATUA.**
- Nazioarteko lankidetzaren bideratzea erabakitzen eta gauzatzen denean, funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonen partehartze aktiboa, pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen arteko batasuna edo lankidetzaren sustatzea. **GARAPEN POLITIKAK.**



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa